

GERNIKA: BONBARDAKETA EGUNEKO MEMORIAK




1937ko apirilaren 26an Gernika-Lumoko hiribildua bonbardatu zuen Alemaniako Condor legioak Francoren aginduz.

Astelehena zen, azoka eguna, eta herria jendez beteta zegoen.

Une latz haiek bizi izan zituztenen lekukotasunak jasotzen dituen ibilbidea dugu hau.

Gerrako Ahotsak proiektuan jasotako ahozko testigantzetan oinarritua.

Map data: ©2022 Google / Badihardugu Euskara Elkarte



testigantza eta informazio gehiago online mapan



1**ERRENERIATIK IHESI****Lekukoa: Jose Antonio Torrealdai Bilbao**

Hegazkinak bi txandatan etorri zirela gogoan dauka. Sirenak joka hasi zirenean, Malostetik zehar ihesi joan ziren. Sasien ondoan geldi-geldi egon zen beste emakume baten besoetan. Aita kortan geratu zen.

**5****ANDRA MARIEN ELIZAN BABESTUTA****Lekukoa: Kontxi Arrien Monasterio**

Bonbardaketa egunean, kanpaiak entzun eta Andra Mariko kanpandorrera joan zen babestera. Handik irteterakoan, etxera joan zen eta ez zuen inor aurkitu. Beraien etxeak, hurrengo egunean hartu zuen su eta Ajangizera joan ziren.

**2****ERRENERIAKO ZUBIA****Lekukoa: Maria Dolores Basterretxea Santiago**

Gernikako bonbardaketa izan zenean, umea zen, baina gogoan du bere aitabitxiak babeslekura zelan eraman zuen. Bonbardaketako gauean, Erreneriako zubiraino joan eta soldaduek ez zieten pasatzen utzi. Errenerian pasa behar izan zuten gaua

**6****ERIAKO ASTO GUZTIAK HILIK****Lekukoa: Luzina Arriola Zabalia**

Bonbardaketan, babeslekuan ezkutatu ziren, "Refugios de Rojo" deritzonengan. Azokatik bueltan zihoan jende asko metrailatuta hil zuten. Erian, Pablo Picasso kale ondoan, astoak-eta egoten ziren eta bertan hil zituzten 70 bat.

**3****SAN JUAN IBARRATIK IHESI****Lekukoa: Juanita Bergara Mintegia**

Bonbardaketak San Juan Ibarran harrapatu zuen. Bere lehengusina eta haren umearekin egon zen eta berak etxerako bidea hartu zuen. Baina lehengusinari eta umeari bonba bat gainera jausi, umea hil eta lehengusinak hanka zauritu zuen. Etxera Ajangiztik joan zen, bideak metrailatu egiten zituztelako.

**7****GORPUAK HILOBIRATZEN****Lekukoa: Anastasio Gondra Goikolea**

Bonbardaketaren ostean, etxe bakoitzetik lagun bat eskatzen zuten soroan gorpuak hilobiratzeko zuloak egiteko. Bizkargin hiltzen ziren nazionalen gorpuak izaten ziren eta zenbakiak identifikatzen zituzten. Gurdiz ekartzen zituzten gorpuak ospitaleetik hilerrira.

**4****BABESLEKUAK: UDALETXEA, ANDRA MARI KALEA, ATERPE TABERNA, ASTRA LANTEGIA...****Lekukoa: Serafin Ruiz Sagasti**

Gernikan zebilen bonbardaketa hasi zenean. Udaletxe azpiko babeslekuan egon zen bera; beterik zegoen. Ordu batzuetan egon ziren barruan. Apaizak errezoka aritu ziren.



testigantzak entzun

